

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4490

85/2022 EBAZPENA, urriaren 10ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzeta-hitzarmena aldatzeko hitzarmena, FEAGA eta LGENF Europako funtsen kargura finantzatutako zuzeneko laguntzen eta landa-garapenerako neurrien kudeaketari loturiko jarduketak eskuordetzeari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak aipatutako hitzarmena sinatu du, eta, hari dagokion publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzeta-hitzarmena aldatzeko hitzarmena, FEAGA eta LGENF Europako funtsen kargura finantzatutako zuzeneko laguntzen eta landa-garapenerako neurrien kudeaketari loturiko jarduketak eskuordetzeari buruzkoa (ikusitako eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 10a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2022ko urriaren 19a, asteazkena

ERANSKINA, URRIAREN 10EKO 85/2022 EBAZPENARENA, JAURLARITZAREN
IDAZKARITZAKO ETA LEWEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO
ZUZENDARIARENA

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE ORDAINTZAILEAREN
ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ALDATZEKO
DENA. FEAGA ETA LGENF EUROPAKO FUNTSEN KARGURA FINANTZATUTAKO
ZUZENEKO LAGUNTZEN ETA LANDA-GARAPENEN NEURRIEN KUDEAKETARI
LOTUTAKO JARDUERAK ESKUORDETZEARI BURUZKOA DA AZKEN HITZARMEN HORI

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 13a.

BILDU DIRA:

Batetik, Eduardo Aguinaco López de Suso jauna, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako foru diputatua.

Eta bestetik, María Aranzazu Tapia Otaegui andrea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia-
ren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua.

HAUEN IZENEAN ARI DIRA:

Lehena, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari moduan.

Bigarrena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia-
ren Garapen, Jasangarritasun eta Inguru-
men Sailaren izenean eta haren ordezkari moduan.

AZALTZEN DUTE:

Lehenengoa.– 2021eko irailaren 29an sinatu zuten lankidetza-hitzarmena Euskal Autonomia
Erkidegoko erakunde ordaintzaileak eta Arabako Foru Aldundiak, FEAGA eta LGENF Europako
funtsen kargura finantzatutako zuzeneko laguntzen eta landa-garapeneko neurrien kudeaketari
lotutako jarduerak eskuordetzeari buruz.

Bigarrena.– Hitzarmena sinatu ostean, Europako Batzordeko Nekazaritza eta Landa Gara-
peneko Zuzendaritza Nagusiak Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzailearekin egin
zuen bilera batean, honako hau adierazi zuen, hiru foru-aldundiek erakunde ordaintzailearen liki-
dazio-bulego ofizial gisa duten eginkizun teknikoari dagokionez:

«Funtzio hori hitzarmenen 2. kontuan hartuzkoan zerrendatutako eginkizun delegatuetatik
argi eta garbi bereizita badago ere, DG AGRI Zuzendaritza Nagusiak uste du nahasmena sor-
dezakeela foru-aldundiek ordainketak egiteko duten funtzioari buruz. Beraz, Espainiako agintariei
eskatu zien 5. kontuan hartuzkoa berrikusteko edo alde batera uzteko, foru-aldundien berriazko
eginkizun hori aparteko akordio tekniko batean sar dadin, 907/2014 (EB) Erregelamenduaren
eranskinen 1.C puntuan aurreikusitako eskuordetutako eginkizunetatik bereiziz».

Hirugarrena.– Hori dela eta, 2021eko irailaren 29an sinatutako hitzarmena aldatzea proposatu
da, hau da, bigarren klausularen 5. puntua kentzea.

Laugarrena.– Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak, 2022ko martxoaren 29an,
aldaketa-hitzarmenaren testua onartzeko erabakia hartu du, eta horren berri eman zaie Arabako
Foru Aldundiko Batzar Nagusiei, 2022ko apirilaren 5ean.

Bosgarrena.– Halaber, 2022ko ekainaren 14ko Gobernu Kontseiluan onartu da.

Seigarrena.– 2022ko ekainaren 23an, aldaketa-hitzarmenaren proiektua Eusko Legebiltzarrean aurkeztu zen, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 18.a) artikuluan aurreikusitako jakinarazpenaren ondorioetarako.

Azaldutakoa dela bide, aldeek egintza honetarako legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri, eta duten ordezkartzan, administrazio-izaerako aldaketa-hitzarmen hau sinatu dute honako klausula hauekin:

KLAUSULA

Bakarra.– Bigarren klausulako 5. paragrafoa kentzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileak eta Arabako Foru Aldundiak sinatu zuten lankidetzahitzarmenetik. Hitzarmen hori, hain zuzen, FEAGA eta LGENF Europako funtsen kargura finantzatutako zuzeneko laguntzen eta landa-garapeneko neurrien kudeaketari lotutako jarduerak eskuordetzeari buruzkoa da.

Eta azaldutakoarekin ados daudela adierazteko, aldaketa-hitzarmen hau formalizatzen eta sinatzen da, goiburuan ageri diren lekuan eta egunean.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

Arabako Foru Aldundiko Nekazaritzako foru diputatua,
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO.